



**UPV/EHUKO GARAPENERAKO LANKIDETZA
BULEGOAREN LAN-EGITASMOA
2012/2013 IKASTURTEA**

AURKEZPENA

Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa, Gizarte Erantzukizuneko eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetzari atxikia, UPV/EHUK sorturiko zerbitzu bat da, eta haren xedea da garapenerako unibertsitate-lankidetzaren bultzatzea; hau da, unibertsitate-komunitatearen ahalegin solidarioa sustatzea, lankide dituen gizartearen nahiz bere gizartearen gaitasunak indartzeko, unibertsitate- eta hezkuntza-sektoreei dagozkienak bereziki.

Xede horri jarraituz, unibertsitateko hainbat sektorek garapenerako lankidetzaren arloan egiten duten lana koordinatu, bultzatu eta bideratzen du; eta, horrekin batera, Unibertsitatea garapenerako nazioarteko lankidetzarako eragile gisa ikusarazteko eta nabarmentzeko lanean dihardu.

ZEREGINAK

Irakaskuntzaren esparruan, Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren eginkizuna da Euskal Herriko Unibertsitatean garapenerako hezkuntza lantzeko bitartekoak eskaintzea, ekimenak babestea eta sustatzea, baita arlo horretan giza baliabideak eta baliabide teknikoak optimizatzeko ahaleginak koordinatzea eta UPV/EHU garapenerako hezkuntza lantzeko finantzaketa bilatzea ere.

Ikerketari dagokionez, Bulegoaren xedea da garapenerako nazioarteko lankidetzarekin lotura duten ikerketa-ildoak abian jartzeko eta lantzeko ekimenak sustatzea eta horretarako baliabideak eskaintzea; ikerketa aplikatuko balizko ildoak koordinatzea; eta ikertzaileen eta garapenerako nazioarteko lankidetzako proiektuetan diharduten ikertzaile eta erakundearen arteko erlazioa erraztea, arreta berezia emanez arlo horretan espezializaturiko institutu, katedra eta UPV/EHUren beraren bestelako antolakuntza-unitateei. Era berean, garapenerako lankidetzaren esparruan ikerketa sustatzeko finantzabideak bilatzeko lan egingo du.

Zerbitzuen eta garapenerako lankidetzako beste eragile batzuekiko harremanei dagokienez, zeregin hauxe du Bulegoak: UPV/EHUK garapenerako nazioarteko lankidetzari begira gizarteari eskain diezazkiokeen zerbitzuak koordinatzea.

Horrekin batera, Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak herrialde txiroetako unibertsitateekin zuzeneko lankidetzaren esperientziak sendotu nahi ditu, bai irakaskuntzaren eta ikerketaren esparruan, baita ikasketen kudeaketa eta antolaketaren esparruan ere.

Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak bere egitekoak behar bezala garatzeko beharrezko harreman instituzionalak landuko ditu, ahal duen heinean, beste unibertsitate eta garapenerako eragile batzuekin.

Lankidetzaren Bulegoak Lankidetzaren Kontseiluarekin elkarlanean dihardu, diseinaturiko jarduerak gauzatzeko beharrezko laguntza tekniko eta administratiboa eskainiz.

Hori guztia lortzeko, Lankidetzaren Bulegoak UPV/EHUren egitura guztien arteko lankidetzaren sustatuko du, garapenerako unibertsitate-lankidetzaren esparruan garatutako jardueretan.

NOR GARA?

Bulegoko bertako langileak:

ESPE ETXEANDIA /IRAIDE APARICIO (Administrari laguntzailea)

ESTIBALIZ MARTÍNEZ (Langile teknikoa)

UNAI ETXEBARRIA (Langile teknikoa)

Bulegoaren zuzendaritza:

IRATXE AMIANO (Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaria)

Lankideak:

Ikastegietan ikastaro monografikoak antolatzen lankide modura diharduten irakasleak eta AZPko langileak.

Ikastegietako lankidetzarako garapenerako practicum antolatzen eta kudeatzen lankide modura diharduten irakasleak eta AZPko langileak.

HEGOA unibertsitate-institutua, Bulegoaren jarduerak antolatzeko eta diseinatzeko laguntza teknikoa emanez.

Unibertsitateko elkarteak eta GGKEak.

Euskal Fondoak (Bilbo, Donostia eta Gasteizko udalak).

Eusko Jaurlaritzak.

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN 2012/2013 IKASTURTERAKO LAN-EGITASMOA

2012/2013 IKASTURTERAKO HELBURUAK ETA LAN-ILDOAK

- a) **UPV/EHU modu aktiboagoan inplikatzeko lankidetzarako eragile gisa, eta nabarmentzeko garapenerako sozioekonomikoko prozesuetan lankidetzaren ofizialarekin eta gobernuz kanpoko lankidetzarekin batera jarduteko gai diren unibertsitateen garrantzia.**
1. UPV/EHU garapenerako unibertsitate lankidetzako **Jokabide Kodea eraginkortasunez ezarri den ebaluatzea**, CICUEk (CRUE) abian jarritako ekimenetan parte hartuz.
 2. **Era aktiboan parte hartzea berriki G9 taldean sorturiko garapenerako lankidetzako lan-taldean**, ekimen bakoitza abian jartzeko behar den laguntza emanez, langile teknikoaren bitartez.
 3. **GULK Garapenerako hezkuntzaren esparruko ekintzak abian jartzeko finantza bideak bilatzen laguntzea**, diru-laguntzen eta bestelako laguntzen deialdien datu-base eguneratu baten bidez.

- b) **Ikasleek beren ikasketa-curriculumean lankidetzarako garapenerako proiektuetan parte har dezaten sustatzea**, nahitaezko practicumaren, gradu-amaierako lanen eta hautazko kredituen bidez.
4. **Prestakuntza-jarduerak eskaintzea, urtero**, partaidetzan oinarrituriko metodologiak oinarri hartuta -hala nola, ikastaro monografikoak-, eta horiek hautazko kreditu modura aitortzea.
 5. **Ikasleek garapenerako lankidetzako proiektu edo programetan parte har dezaten erraztea** (boluntarioritza), horiek hautazko kreditu modura aitortuta, proiektu edo programen zabalkundea sustatuz eta ikasleen eta programa eta proiektu horiek kudeatzen dituzten eragileen bitartekaritza sendotuz.
 6. **Gradu-amaierako eta nahitaezko practicumeko lanak** unibertsitateak berak nahiz garapenerako lankidetzako beste erakunde batzuek (GGKEek eta bestelakoek) kudeatutako **lankidetzarako garapenerako proiektuetan egin daitezten sustatzea**, gizarte-erakundeekin lankidetzak-hitzarmenak eginez, unibertsitate-komunitateari abian diren proiektuen berri emanez eta ikasleei jarduera horien kostua finantzatzeko bekak eskainiz.
- c) Garapenerako lankidetzaren esparruan **garapenerako ikerketa sustatzea**, ikerketa-taldeei eta institutuei laguntza emanez, unibertsitateak dituen baliabideak haien esku jarritz.
7. Garapenerako lankidetzako gaien ikerketa sustatzea, ikerketa-proiektuak finantzatuz, **UPV/EHUren Lankidetzaren Bulegoaren garapenerako lankidetzarako proiektu eta ekintzak aurrera eramateko diru-laguntza deialdiaren bidez**.
 8. Nazioarteko lankidetzari eta garapenerari buruzko ikerketa-taldeak eta ikerketa-proiektuak sortzeko eta sendotzeko laguntza ematea, **hitzarmenak sustatuz** ekimenen helmugako beste erakunde lankide batzuekin, lankidetzako gizarte-erakundeekin eta beste herrialde batzuetako erakundeekin.
- d) UPV/EHUK antolatutako garapenerako lankidetzaren ekimenetan, **zehar-elementu gisa txertatzea** genero-berdintasuna, ingurumen-iraunkortasuna, bakea, demokrazia eta giza eskubideen errespetua, eta **aldagai horiek** Bulegoaren deialdi guztietako **baremazioetan kontuan hartzeko parametroak izatea**.
- e) **Unibertsitateko kideei ikusaraztea** zein garrantzizkoa den lankidetzaren, solidaritatearen eta gizarte-justizian oinarrituriko jarreraren eta balioak izatea, unibertsitateko kideek garapenerako lankidetzako ekimenetan parte har dezaten eta horietan inplika daitezten sustatuz.

9. **IIei eta AZPko langileei prestakuntza iraunkorrerako** mintegiak eta tailerrak eskaintzea, beste unibertsitate-egitura batzuekin koordinatuta (institutuak, zerbitzuak...).
 10. Lankidetzaren Kontseiluarekin lankidetzaren unibertsitateko kideentzat **hitzaldiak, jardunaldiak eta topaketak** antolatzea, garapeneraren funtsezko auzi eta erronken gaineko eztabaidetan sakontzeko.
 11. UPV/EHUK garapenerako hezkuntzaren eraginkortasuna areagotzera begirako solidaritate-sareak sor dituzan eta horietan parte-hartze aktiboa izan dezan erraztea, Lankidetzaren Bulegoaren bitartez **zabalkunde-lana, hitzarmenak eta jarduerako koordinatuz**.
 12. Eskuragarri dauden baliabideak unibertsitate-elkarteen esku jartzea, **garapenerako hezkuntzaren esparruko proiektuetarako deialdiak eginez**, elkarte horiek esparru horretarako aurreikusitako jarduerak bidera ditzaten.
 13. UPV/EHUren **boluntarioritza-plan propioa** abian jartzen laguntzea.
- f) Maila lokalean nahiz beste herrialde batzuetan **UPV/EHUK helmugako erakunde lankideekin dituen harremanak hobetzea, hitzarmenak sinatuz, GULko proiektuetarako laguntzen deialdiak eginez eta egindako jardueren txostenak bidaliz**.
- g) UPV/EHUK garapenerako lankidetzaren esparruan garatzen dituen jardueren **gardentasuna** areagotzea eta haiei nabarmentasuna ematea.
14. Bulegoaren jardueraren eta ekintzen **berri ematea**, CAMPUSAn eta gizarte-sareetan albisteak argitaratu emanez.
 15. Informazioaren eta komunikazioaren **teknologia berrien erabilera sustatzea**, unibertsitatearen baitako elkarte-sarearen ekintzak bateratzeko, koordinatzeko eta sustatzeko.
 16. Ikasleen 0,7aren bidez lorturiko funtsei ematen zaien erabileraren jarraipena egitea eta horri buruzko informazioa argitaratzea.
 17. Bulegoaren jardueraren informazio xehearen txostena argitaratzea, webgunean.
 18. Bulegoaren urteko aurrekonturako genero-ikuspegiari buruzko txostena egitea.
- h) Antolakuntza-unitateak eta antolakuntza-egiturak nahiz unibertsitateko kideak GULko jardueretan **lankide gisa ari daitezela sustatzea eta horien inplikazioa erraztea**.
19. Unibertsitatearen gizarte-funtzioa indartzea, hau da, gizartearen premiei erantzuteko duen gaitasuna areagotzea. Horretarako, **Lankidetzaren Bulegoak eguneratuta eduki beharko du UPV/EHUK garapenerako lankidetzarako**

eskuragarri dituen baliabideen mapa, 0 diagnostikotik abiatuta, edo teknologia berriak erabilita.

20. Garapenerako estrategiak sustatzea eta laguntzea, **sareko lana erraztuz**, unibertsitate-egituren eta unibertsitateko kideen eta kanpo-eragileen artean (hala nola, GGKE, erakunde publiko, koordinakunde eta bestelako gizarte-erakundeak), bide horretatik garapenerako unibertsitate-lankidetzako proiektu bateratuak abian jartzeko.

21. Lankidetzaren esparruan diharduten beste eragile batzuei (GGKE, erakunde, gizarte-mugimenduei eta helmugako erakunde lankideei) UPV/EHUko ikerketa-taldeek garapenerako lankidetzaren arloan sorturiko ezagutzetarako sarbidea erraztea, **eragile horien premiak eta UPV/EHUko ikerketa-taldeak eta baliabideak elkarri uztartuz.**

2012/2013 IKASTURTEKO ADIERAZLEAK

<p>a) UPV/EHU modu aktiboagoan inplikatzea lankidetzarako eragile gisa, eta nabarmentzea garapen sozioekonomikoko prozesuetan lankidetzaren ofizialarekin eta gobernu kanpoko lankidetzarekin batera jarduteko gai diren unibertsitateen garrantzia.</p>	
<p>1.1.- CICUEren (CRUE) Jokabide Kodearen ebaluazioa egiteko taldean parte hartu dugu (Bai/Ez):</p>	
<p>1.2.- Jokabide Kodearen aplikazioa ebaluatu da. (Bai/Ez):</p>	
<p>2.1.- G9ren garapenerako lankidetzako lan-taldearen bileretan parte hartu dugu. (Bai/Ez)</p>	
<p>2.2.-Lan-taldearekin loturiko ekintza zehatzak abian jarri dira. (Bai/Ez)</p>	
<p>3.- Datu-base bat osatu da, GULko jarduerak abian jartzeko diru-laguntzen eta bestelako laguntzen deialdiekin, eta eguneratuta daukagu. (Bai/Ez)</p>	
<p>b) Ikasleek beren ikasketa-curriculumean lankidetzarako garapenerako proiektuetan parte har dezaten sustatzea, nahitaezko practicumaren, gradu-amaierako lanen eta hautazko kredituen bidez.</p>	
<p>4.- Emandako ikastaro monografikoen kopurua*</p>	
<p>5.- GGKEetan boluntario gisa aritu diren kideen kopurua</p>	

6.1.- Gradu-amaierako lanak garapenerako lankidetzako proiektuetan egin dituzten ikasleen kopurua.	
6.2.- Garapenerako lankidetzako proiektuetan nahitaezko practicumak egin dituzten ikasleen kopurua	
c) Garapenerako lankidetzaren esparruan garapenerako ikerketa sustatzea, ikerketa-taldeei eta institutuei laguntza emanez, unibertsitateak dituen baliabideak haien esku jarritz.	
7.1.- UPV/EHUren Lankidetzaren Bulegoaren garapenerako lankidetzarako proiektu eta ekintzak aurrera eramateko diru-laguntza deialdira aurkeztutako proiektuen kopurua.	
7.2.- UPV/EHUren Lankidetzaren Bulegoaren garapenerako lankidetzarako proiektu eta ekintzak aurrera eramateko diru-laguntza deialdiaren bidez finantzatutako proiektuen kopurua.	
8.- Hitzarmenak sinatuz lagundutako ikerketa-proiektuen edo ikerketa-taldeen kopurua.	
d) Genero-berdintasuna, ingurumen-iraunkortasuna, bakea, demokrazia eta giza eskubideen errespetua Bulegoaren deialdi guztietako baremazioetan kontuan hartzeko parametro modura kontuan hartu dira. (Bai/Ez)	
e) Unibertsitateko kideei ikusaraztea zein garrantzizkoa den lankidetzan, solidaritatean eta gizarte-justizian oinarrituriko jarrera eta balioak izatea, unibertsitateko kideek garapenerako lankidetzako ekimenetan parte har dezaten eta horietan inplika daitezzen sustatuz.	
9.- IIei eta AZPko langileei prestakuntza iraunkorrerako eskaintako mintegi eta	

tailerren kopurua*.	
10.- Lankidetzaren Kontseiluarekin lankidetzaren unibertsitateko kideentzat antolatutako hitzaldi, jardunaldi eta topaketen kopurua*.	
11.- UPV/EHUK parte hartzen duen solidaritate-sareen izena.	
12.- Garapenerako hezkuntzaren esparruko proiektuetarako unibertsitate-elkarteentzako diru-laguntzen deialdietara aurkeztutako proiektuen kopurua.	
13.- UPV/EHUKen boluntarioritza-plan propioa abian jartzeko lankidetzaren (Bai/Ez)	
f) Helmutarako erakunde lankideekin sinatutako hitzarmenen eta haiei bidalitako txostenen kopurua.	
g) UPV/EHUK garapenerako lankidetzaren esparruan garatzen dituen jardueren gardentasuna areagotzea eta haiei nabarmentasuna ematea.	
14.- CAMPUSAn eta gizarte-sareetan argitaratutako albisteen kopurua.	
15.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera, unibertsitatearen baitako elkarrekin sarearen ekintzak bateratzeko, koordinatzeko eta sustatzeko. (Bai/Ez)	
16.- Ikasleen 0,7aren bidez lorturiko funtsei ematen zaien erabileraren informazioa zabaltzea. (Bai/Ez)	
17.- Bulegoaren jardueren informazio xehearen txostena argitaratzea, webgunean.	

(Bai/Ez)	
18.- Bulegoaren urteko aurrekonturako genero-ikuspegiari buruzko txostena egitea. (Bai/Ez)	
h) Antolakuntza-unitateak eta antolakuntza-egiturak nahiz unibertsitateko kideak GULko jardueretan lankide gisa ari daitezen sustatzea eta horien inplikazioa erraztea.	
19.- UPV/EHUK garapenerako lankidetzaren esparruan dituen baliabideen mapa eguneratuta dago. (Bai/Ez)	
20.- Unibertsitate-egituren eta unibertsitateko kideen eta kanpo-eragileen artean (hala nola, GGKE, erakunde publiko, koordinakunde eta bestelako gizarte-erakundeak) garapenerako unibertsitate-lankidetzako proiektu bateratuak abian jartzeko egindako aliantzak.	
21.- Lankidetzaren eragileen premiak eta UPV/EHUKo ikerketa-taldeen eta baliabideen lorpenak elkarri uztartzeko landutako proiektuen kopurua.	

*Bulegoak erabilgarri duen aurrekontuaren arabera aldatu daitezke adierazle batzuk.